

IDEIA BAT BERTAN BEHERA UZTEKO 10 ERA

Gerardo Tapia

Aldaketen aurkako erresistentzia ohmetan neurtuko balitz, zirkuitu irekien portaera (erresistentzia infinitu alegia) duen lagun bat baino gehiago ezagutuko duzula ustedut. Ideia bat aditzera eman eta norbaitek berau atzera botatzea zuri ere noizbait gertatuko zitzaizun, zalantzarik gabe.



“Zure proposamena lelokeria da, eta hariak airean ipintzea benetan barregarria da” adierazi zuten Errusiar Erret Batzorde batekoek 1836. urte inguruan, telegrafo elektrikoaren iradokizuna gaitzetsiz.

Batzuetan, *statu quoa* defendatzeko besterik ez bada ere, badirudi ideia berriari (ideia hori edozein delarik) eraso egingo zaiola. Hemen, ideia bat bertan behera uzteko hamar bide ezberdin aipatuko dira. Kontutan hartu beharreko hamar eraso–mota eta beren aurka defendatzeko modu batzuk ere aztertuko dira.

1. Irrigarria

Zure proposamena irrigarria dela esateak asko minduko zaitu. Zure aurkezpenean akatsa dela eta, oso larri sentituko zara batzordearen aurrean. Nahiz eta hitzaldia ongi prestatzen ahalegin guztiak eginak izan, ez zara hutsune horretaz ohartu. Beraz, zure aurkakoaren erreakzioa ikusirik, batzordeko guztiek berdin pentsatzen dutela eta guztiak zure erroreaz konturatu direla uste izango duzu. Zure ideia defendatzeko gai ez zarelarik,

zeharo beldurtuta geratuko zara, akats hori aurkitzen saiatzen zaren bitartean.

Agian akatsa hor dago, baina agian ez. Beraz, izan zaitez ausarta. Galde iezaiozu zure aurkakoari zer dagoen oker, zuzenean harira joan dadila eskatuz. Normalean, guztia ongi egongo da eta akatsa aurreritzia besterik ez zen izango.

2. Ez du funtzionatuko

Une horretan, zure ideiarene praktikotasuna zalantzan jartzen duen arrazoi–zerrendaren aurrean aurkituko zara. Zure aurkakoa ahots apal baina tinkoaz mintzatuko da, haur bati zerbait azaltzen ari balitzaio bezala. Ez du inoiz ezinezkoa denarekiko gorespen hitzik erabiliko: “Hasieran proposamen zuzena” zirudien baina “egoera honetan” (aipaturik gabekoa)...

“Esperientzia gehiagorekin” edota “hemen denbora gehiago daramazuzen” eta antzeko esaldi guztiak ez dira kontziliagarri; erasokorrek baizik. (Ez zara guri ezer irakastera etorriko, noski).

Ideia batek ez funtzionatzeko dituen zergatiak eta kontrako argudioak aipatzea lan bukaezina gerta daiteke.

3. Ez da inoiz frogatua izan

Ideia benetan berria baldin bada, ez da aurretik frogatua izan, noski. Ez da hori 3. puntu honek aditzera eman nahi duena. Planteamendua honakoa da: ideia hori hain miresgarria izanik, beste norbaitek ere horretan lanean ari beharko luke. Inortxo ere ari ez denez, ez dirudi ideia horrenbesterainokoa denik.

Bestalde, badira alderdi ezberdinetatik lan egiten duten beste batzuk: “ez gara pioneroak”, “oso arriskutsua da”, “ezku-

tuko kostuak egon daitezke” edo “ezagutzen ez ditugun gauzak ere posible dira” esanez aritzen direnak, hain zuzen ere.

Baina norbaitek esan zuenez, “ezagutzen ez duguna” ongi egindako lan baten gainera erreminta zikinak bezala botatzeko oso egokiak dira. Beldurra sorteraz dezakete.

4. Lehen ere frogatu da


Esan nahi dena zera da: zure ideia, aurkezpen-modu berri batez mozorro-turiko ideia zaharra besterik ez dela. Lehenago huts egin zuen eta ondorioz, orain ere huts egingo du. Beraz, eziezaguzu gure denbora galdu erazi.

Zuk ideia ezberdina dela erantzungo duzu. Edo lehen, ideia hori desegoki gauzatu zela; lehen aldiz prestatua izan zenean, ez zela ideia oker zegoena, aplikazioa baizik. Horra hor huts egitearen zergatia. Eraso hau ezin hobea da; zure aurkakoa aurrekoaren erantzule izan bazen batez ere.

5. Barre egin

Idea bati barre egitea eta berau irri-garritzat hartzea ez da gauza bera, baina biek berdin mintzen dute. Ez dago ideia horren aurka ezer esan beharrik; zure aurkakoak barregarritzat jotzea nahikoa bait da. Barreak barrea sorterazten duenez gero, batzordeko guztiak barrez hasiko dira inork arrazoirik eman gabe.

Ondoren, batzordeko mahaiburuak beste gai batera joko du, zu (eta beste guztiak ere bai) zeure buruari barre zergatik egin duten galdezka uzten zaituztelarik.



Galileoren ideiak Inkisizioaren eraso izan zuten.



G.S. Ohm. G.G.Phil irakasleak gaur egun ezagutzen dugun beronen lege ospetsua gaitzetsi egin zuen “gertaeren behaketa azalezkoenean ere oinarririk ez duen irudimen hutsez josirik amarauna” besterik ez zela adieraziz.

6. Ez da eskaririk izango

Honen aurkako defentsarik onena, ideia aurkeztu aurretik merkatuaren ikerketa egitea da. Normalean batzordekoek ez dute egina izango, eta beraien eritzia instintiboa edo aurreritzia izango da. Dena den, beraien argudioak oso tinkoak izango ez direnez, zure ideien finkotasunaz segurta zaitez. Zalantzaren hazia erein ondoren honek aurrera egiten duenez gero, zure arrazoiek oso zuhurrak beharko dute izan.

7. Sabotaia

Normalean, zure aurkako erasoak prestatzen ari dela ez zara ohartuko beranduegi den arte. Orduan ere ez duzu jakingo eraso nondik etorri den.

Ez da erraza etengabeko erasoaren aurka lan egitea. Idea asko eta askok porrot egin du bazkal osteko elkarrizketa baten ondorioz.

Defentsarik onena, zure ideia onartua izan ondoren ere beronen alde lan egiten jarraitzean datza; arrazoi positiboak pertsona egokien buruetatik hurbil izan daitezela segurtatuz.

Adibide bezala Edison Konpainiarena emango dugu. 1888. urtean, Edison Konpainiak ahalegin guztiak egin zituen Ameriketako korrante alternoa erabil ez zedin. Edison Konpainiak korrante zuzena erabiltzen zuten bitartean, Westinghousekoek alternoa lan egiten zuten. New Yorkeko estatuak aulki elektrikoa Westinghouseko korrante alternoko ekipamenduaz hornitu zuzenean, Edisonekoek garaipen garran-

tzitsua lortu zuten. Diotenez, aulki elektrikoan hiltzeari Edisonekoek “Westinghousing” deitu nahi izan zioten.

8. Arriskutsuegia

Salakuntza hau suntsigarria gerta daiteke, batez ere arrisku publikoa aipatzen baldin bada. Zure aurkakoak ez du arrazoi zehatzen beharrik izango. Zure ideien ondorio bezala deuseztapena etorriko dela esatea nahikoa da. Hau dela eta, zure konpainiaren ospea, harreman publikoak eta aseguruarekin izango dituzun arazoak, zure aurka izango dituzu. Une zailean zaude, baina gauzak argi gera daitezten arrisku horiek ondo zehaztea eska dezakezu, eta benetakoak ez badira, nolabait agerian jarriko da.

9. Legez kanpo zaude

K.O. teknikoaren deritzona da: Zure aurkakoak zure ideia legez kanpo egon daitekeela adierazten dizu. Ez du arrazoi konplexuen beharrik. Konpetentziarekin sinatutako akordioaren bat hausten du, patenteak edo copyright-eko istiluak medio direlarik. Hauek oso garestiak gerta daitezkeela gogoraraziko dizute.

Egin dezakezun gauza bakarra xehe-tasunak eskatu eta beste akordio baten negoziaketaz hitz egitea da.

10. Zure aurkako erasoak

Kasu honetan ez zaio zure ideari eraso; zuri zeuri baizik. Sortutako istiluren ondorioz, ideia alde batera utziko da.

AURRERA!

Eman ditugun hamar eraso-mota hauek hemendik aurrera dituzun ideia guztiak zuretzat gordeko dituzula pentsatzera eraman bazaituzte, ez etsi. Aurrera egin behar duzu. Enpresa guztiek ideia berrien beharra dute, aurrera jo nahi badute.

Bestalde, gogora ezazu honakoa:

Enpresari bati zerbait (makina edo ideia) berria proposatzen badiuzu, bere ahalegin guztiak kezka azaltzen eta bere ezintasuna erakusten erabiliko ditu. Patata zuritzeko makina asmatu duzula esaten badiuzu, ezinezkoa dela erantzungo du, baina bere begien aurrean patata nola zuritzen duen ikusten duenean, piperrak zuritzeko balio ez duenez, balio gabekoa dela esango dizu. ■